

	OÑATIKO UDALA	
	Inregistro Data	
2013 APR 23		
SARRERA	IRTEERA	
806		

Oñatiko BILDU udal taldeak honoko mozioa aurkezten du:

Gasteizko legebiltzarrak proposamen bat onartu du, Gobernuari eskatzen diona berma dezala autonomia erkidegoko haur eskoletan gaztelania erabiltzea. Hori atzerapausoa da —oso larria, gure ustez— euskararen aldeko bidean eta haur eskoletako hizkuntza murgilketaren eredian.

Ez da harritzekoa hezkuntzako, gizarteko eta sindikatueta eragileek proposamen horren aurka agertu behar izatea, eta orobat oso larritzat jo izana. Proposamenak, izan ere, ez ditu aintzat hartu Euskal Herrian nozitzen dugun diglosia egoerari aurre egiteko funtsezkoak diren hizkuntza eta hezkuntza politikak.

Uste dugu beharrezkoa dela euskararen hizkuntza normalizazioan aurrera egitea, eta horregatik ez ditugu ulertzen halako ekimenak —eta ez gatoz halakoekin bat—, hain zuzen ere gizarteak eta hizkuntza nahiz hezkuntza azterlanek eskatzen duten noranzkoaren aurkakoa baitaramate. Azterlan horiek behin eta berriz erakutsi dute hizkuntza gutxituen —esaterako, euskararen— normalizazioa bermatzeko modurik onena hizkuntza murgilketako ereduak direla.

Orain, Wert Legea deritzona aldeztu duten eta inposatu nahi digutenean eskutik, eredu berri bat ezarri nahi izatea, haur eskoletan gaztelania nahitaez bermatuta izan dadin, orain arte egin den murgilketa eredu eta euskararen normalizazioa arriskuan jarrita, itxuragabekeria dela uste dugu. Horregatik guztiarengatik, gure ustez beharrezkoa da Oñatiko Osoko Bilkurak ondorengo erabaki hauek onartzea:

1. Oñatiko Osoko Bilkurak Gasteizko Gobernuari eskatzen dio ez dezala aintzat hartu eta ez dezala aplikatu autonomia erkidegoko haur eskola publikoetan gaztelania bermatu nahi duen proposamena.

2. Oñatiko Osoko Bilkurak adierazten du hizkuntza gutxituen —hala nola euskararen— hizkuntza murgilketako ereduaren alde dagoela, hori baita hezkuntzaren arlotik —eta, horrenbestez, haur eskoletatik ere— gure hizkuntza normalizatzen aurrera egiteko modurik onena.

3. Oñatiko Osoko Bilkurak exijitzen du erakunde guztiek ardura argia erakuts dezatela, euskara normalizatzen eta euskaldunen eskubideak errespetatzen aurrera egin dadin.

Oñatin 2013ko Apirilaren 22an.

